

# NAZIO ARTEKO EGOERA NASTUA

Arjel'en bildu berri dan Apro-Asiatarren elkarte-bilerak agirian jarri du gaurko munduko artu-emanen korapillo nastua. Orain arte, bi aldetatik zebillen Nazioetako gurrupilla. Alde batetik Errusi nagusi duan komunista-lurraldea, ta bestetik Sartaldeko nazio-sailla, Ipar-Ameriketara aurrelari duala. Auen artean Ingalaterra'k ba-zuan bere aldetik esku pixka bat lasaizkagoa bere erara ibiltzeko.

Bi indar oten tartean, askafatasuna iritzi berri zuten Aprika ta Asia'ko lege-erriak zebiltzen beren jokoera liñorena makurtu gabe erdian irauan nai zutela.

Orain gauzak arpegi berria artu dute. Alde batetik komunista aldetik, Errusi ta Txina'ren arteko estabaida sortu da. Sartaldekoen artean, Prantzi bere aldetik jokatzen asla da, alderdi ontan korapiliorik asko sorturik. Europa Erdiko komunista-lurraldeak ere, len baiño bere buru-jabetza aundiagoa agertzen digu.

Asia ta Aprika'ko aginterrak, naiz Ameriketakoak, indar berri auek beren onerako artu ditzaizete. Bakotzak bere izatera sendotu nai luke, len galdutako urteak aize berriz irabazi naitrik, naiz jakintza-saillan, naiz diru-saillan.

Errusi ta Txina'ko ordezkariek eten dute Arjel'en beren lengo batasuna; baiña erdian irauan nai duten erriak ez dira liñoren alde erabakitzen; espaidute konpianzarik ortarako.

Itz batean, munduko arpegia ziara aldatu zaigu ogel urte auetan. Lengo itxura guzia galdu du, gerrate ondoren ikusten genduan Alemani erori ura, Errusi'ren Europa'z jabetzeko arrisku ura ta komunismoak mundu guziari sortu zion kezka, beste ikuspegi batek jan dituala.

Gaurko politika-mundua askoz nastuagoa agertzen zaigu, beraz, eta naste ori garbira ekarri nai degun bakoitzean, gure alegiñak alperrikakoak gertatzen zaizkigu.

# J. A.-RI GUTUN IDIKIA

J. SAN MARTIN

**Jaun agurgarria:**  
Es naiz geiegi ausartzen eusquera ta euskal literaturari buruzko aburuetan. Era askotako iritziak izanik, beti naitasun norbait iniduko ote dedan. Baina, noiaikelpenean isaten dira orrelako gorde eziniezko gauzako batzuk ta orduan asten naiz siritxuta nalan.

Azkenengo laneri, ikusten det abegi ona egin diosula, ta orren posean erantsungo ditut. Zure galdetarak, askok eta maiz egin dituztenak dira. Idazlea izanlik, estera geiegi ausartzen zenbat lan azaltzen, ustirik bide idurrean etzaidela. Asortri gertatzen saiguna da, ta geiko ori borondate onex aurretrantzaz jarraituz bakarrik ostenen dalaikoa nago.

Plajioak, nere idazkia, gustatu zaizkio? Etzan izango an salisten ziranen atseginezko noski. Astintze ura, aurrera errespetu bidea izan ditzaten egin nuan. Aipatzen nituanak baño ondore gelago ditu plajioak. Ura etzan besterik agirizko azalpen bat baxik.

Zuk ongi diosun bezela, plajio batek, sariketa batera presentatzen denean, beste alde txar batzuek ekarri ditzaizke. Beste beti sarikentza tsurrena, diosun bezela. Zurekin nago. Ta, oraindik gelago ere bada. Au da, juradukoen borondate ona iraindu ondatza. Ez baita munduan gizonik literaturako lan guziak esagutuko ditonik, ta orregatik, errea da plajioz zirik egitea. Baña plajioz salisten bada, lotzagarri usen ditu juradukoak. Ta, ori, kasik beste beti sarikentza añaikos da.

1956-an "Urriko Mintegiak" anolatatu zuan teatru-sariketa artan, neurri kontua, ekitaldi batekoa edo bilkoa, bata jarri araudian eta beste egin, juradukoen erria izan itekean. Aurrez jarritako legea errespetatu bearra da. Joanak

joan. Ta, sarrerantzean kontu gelago izan beaz litzako.  
Baña, plajio atek ots aundia zabaldu zuala (Eguberri-aleak esan nai det) etzago dudarik, Euske-tzale artean, egoz-agoz barra-barra erabilik izan Orain bi urteko Donosteko batzarretan sarri aipatu san, ta ikusi ezazke "Eusquera" VII-garrena. Bertan argitaratuak dira itzaldi olek.

Beste galdetarak buruz: Aintzina-ko gal bat ofarri arturik gaurko erabatera jartzea, legezkoa da. Gahera, orrelakoak, egileak berak, geien-geienetan ez dituzte ibiltzen nundikako ofarriak dauden. Barrutiarrenakin ere, ori egin zezaketen baña etzan orrela. Berak itzik-itzik kopiatu zuan ia guzia. Ta, ori ez baita aintzina-ko gaurkotzea.

Beraz, zuk diosuna Etxezainen Irulearen negarra eta Etxezain Markesaren ababa, zaro beste gauza bat dira. Otek legezkiotat jotzen dira munduko literatura guzietan. Adibidez, Europako sarikaldean erri-erri ebillen kontaera batetik, Tirsu de Molinak egin zuan bere "El burlador de Sevilla, gal bere Molinere Don Juan ou le festin de pierre eta Zorrillak Don Juan Tenorio. Beraz, olek ez ditu liñor plajiozko jo. Gal berean bakoitzenen bererikuntzak bai dituzte.

Marcel Camusok zinemara eraman zuan Orfeo negro ezta besterik aintzina-ko Greko Kontseariko Orfeo, gaurkotzea. Gaheren muina ber-bera baña gaurkotzeaz eta beste era batera, toktz ere aldatua. Beste malli batekoa da, gal be-rti bati edo xar bati, beste lan baten erak artzea. Esate baterako, zinemaran, orainitsu egia da, Los Tarantos, Orfeo negro-ren erara. Orrelakoak ez dira liñoz plajiozko artizan. Ori beste jokera bat da. Plajioa da, gal bat ofarri artu beartean, dan bezelatu, ezertariko idea edo arterio era ezarzteke ematea.

Etxezainen Irulearen negarra, aurkezpena da. Eria besterik, Arkhialpin Hilarde de la capilla ofarri arturik Gorostidik an-terzikira eratu ta Etxezainek aldatua ta geitua. Ori, joku garbia da.

Etxezainek berri, beti izan det ar-aman aundia, ta seguru nago Andoneguren sarbaitekin baliatu buzan ere, berak emandako sar-bait esera itz eta orrelakoak ni-rala, ta Andonegi esagutu aurretik zuala Iurrino-ren Markesaren ababa berrisen gala ofarri arturik egin zuala. Ortarako, etzitan al-perrik zortat egun luze Muxikuan Igaro, arantzaitzen bizitza ta argo-ta jasotzeko. Gahera, ezta lengo aldit Etxezainek ori egiuten duela, era berekoak ditu Amayur, Alos-Torra, Josnak-Joan, Gorrotoa-le.

ge ta aber, kondaira ta kontaretan ofarriak arturik. Shakespeare berak ere, lanik gejenak era ortakoak ditu.

Euskal idazle askok ikasi bear dute, gertatuak beti izaten duala asmatuak baño indar gelago. Orregatik, gal bat idartzea edo obaztea, utsetik asmatzea baño erre-magos dala ta maiz ateratzen dala ezazkoagoa. Ta, gahiera, soriketa-ko ahinerei ezer ukatzeko egin lezake.

Galdetzen didasun Txomin Agi-rrak inoiz jarri dituan "Alimo" ta "Eliba" ta orrelakoak, beste lakiz azalzte orri, ez diot biltatzen egil-lorean gutoen errotasoa besterik. Etzuan orren premarik.

Sintaksik kontuak kezkatzen zaitu, ta gutxi edo asko denona da kezka ori. Jekin zazu "Auspoa" li-buruetatik egiloreen borondata jarraitzen duala. Orregatik, egile zaren lanak berriz argitaratzean, lengo argitalpenari jarraitzen diu. Grafia gaurkotuz, Munduko izuntza guzietan orrela egin bai-ta. Bestela, egiliek jarritakoari jaramonik ez egitera, itzulpena be-zela litzake.

Etxezain geiegi jarritu itz-jokera kontu ortetan. Iritzi asko daude ortaz eta, iritzi guziak bat ez da-tozenez, amagandik eta etriagan-dik ikasi degunari jarraitzea degu onen-onena. Orrelako guzietan, go-goan euki zazu izuntza ez dagola gramatikaren zerbitzari —Mitxel-e-nak maiz esan duen bezela—, bal-zik, gramatika da izuntzari zerbi-tzeko. Ta idazleak, gausa olek, fi-loblogoentzat utzi bear ditu. Gure so-roan, izuntzarikeri gutxi izan di-tugu ta izuntzarikeri asko. Idaz-le bakoitzak tajatu bear du gano-rako izuntzariari oten arteetik bide zabal bat, zentuzko aburueri jar-raiki. Orrela artu genezara erabagi ziar bat. Ortan nere iritzi nai ba-zenu, Altuberen Erdet'imoa dez-u biderik onena. Olako maizua nekuz biltatu ezazke.

Lingustika jakintza menderatze-ko ere, gertua egon bear da, idaz-leentzat irakastiderik onenak Al-tube, Mokoroa ta Mitxelena dirala, izant asko esan genezake. Ta oten irakaspenak ongi ez baditugu apro-betizatzen, tonto aundi batzuk gura.

Oten idazkiak eta oten esanak ofarri arturik, zure oparizko era bat aukeratu ezazke. Ori egiteko erabagi zezat bat ez badezu artzen beti zalantza ibiliko zera, zer bi-de jokatu ez dakizula, buruauten eta eskuartetik lanak atera ezaiñk. Idazite batek, zalantza olek zaro basteru bear ditu, balioako sar-bait egitea nai badu. Puska zazu bein-beingoan mugari orbi ta zure buruautek itzagituz lanari.

# JAUN PERU ABENDAÑOKO

Aurki, Jaungoikoa lagun, "Gorrotoa Lege", Erdi-Garai'n girotutako eleberria —novela— atezatzeke diru argitara, euskaltzale zintzo batzuen diru laguntzari eskerrak eta aurrelari antzo, beronetan agertzen zaizkigun kondairako notinabari —personaje— batzuen antzirudiak ematea otu zaigu. Asi gaitzen Jaun Peru Abendaño'ko'ekin, au agertzen baitzagu gure eleberrian Ganboatar taldearen buruzagi bezala.

Juan Carlos Guerra'k, Ganboatar buruzagi sönatu onen egintzak oparo ematen dizkigu gure alderdi-gizonen —banderizos— idatzi dituen liburu ernegarrietan.

Jaun Peru Abendaño'ko Lekuti'ko —Legutiano edo Villarreal, Araba'koa— eta Urkizu'ko —Arratia'n— nagusia zen eta bere leikiderik gogorrena Jaun Gomis Onzalutz izan zuen, Butro'ko nagusia eta aldi artako Oinaztarren buruzagi lehena.

Lekutiari alderdi-gizonaren antzirudi onetan bere bizitzako gertakizun batera mugatuko gera, xehetasunik geienakin dakigunera, alegia; gure Aide Nagusiaren irudiari antzemateko aski irizten baitzugu kontaktizun on.

1.443'garren urtean —diogu Juan Carlos Guerra'ri jarraituz—, Jaun Gomis Anzaltu'ek, bere taldekiezen buru jarritu, jo zuen Ganboatarren kontra, auek Meñaka aldean zituzten makinatxo bat torretxe errez eta kixkaliz. Besteren artean, Antxo Ortiz Zamudioko Ganboatar zalduna preso artu zuen eta bere alderdara erakartzeko, legezkanpo zuen alaba batekin ezkontu erazi zuen.

Jakina, Jaun Peru Abendaño'ko'ren ohorea etzitekean ain apalduta geldi eta berealaxe mendekua biltatu zuen. Abadiño'n eta Otsandino'n Jaun Gomis'en jauregiak erre zituen eta Aramaio'n ogeita iru etxe, euren artean Mendiola'ko torretxea. Juanes Mendiola'ko etxetik kanpo arripatu zuen Abendaño'ren erasoak eta jabetu zutenean gertatutakoaz, bildu zuen bere jenda eta

eraso zion Lekutiarrari Aramaio'n bertan, Jaun Peru'k igesiari eman zion eta erretiradan bost gizon galdu zituan. Bat Arratiarra zen eta onela egin zion desafio Mendiolotarrari: —Ba alda, ba alda! Eta Mendiola'k: —Ba-da emen bere. I lako bat al-da!, eta lantza bat jantzia zerraldo utzi zuen Arratiarra. Eraso ontan ildako beste guda-mutil baten izena Gasto Apala zen, kantu zaharrak dienez.

Jaun Peru Abendaño'ko'k, Aratondo'ko "etzuan" —etze, otahur, gaztelera "páramo"— zear zijoala, larri asko iges egin zuen bere lagunekin, eta Aramaio'n egindako lapurretakin. Gertakizun ontatik sortu zan kopia zahar auxe:

Izarraga'ti(ko) gora eltzian joala, Jaun Peru Abendaño'ko'k esala (1): Oinhetako lur au jabil(t) ikara, Gorputzeko lau aragiok berala (2). Oi, aldi oneri! Albanegi enpara (3), Barriz enendorke Aramaio'ko kontrara! Mendiola, il deustak Gasto (4) Apala, Bere laguntzat beste asko ditubala.

Egintza ontan Ganboatar Aide-Nagusiak burua makurtuta etzeratu bear izan zuen, baiñan batatz besteke, suertek eta apika zentzuak gei-go lagundu zion Jaun Gomis Onzalutz Oinaztar buruzagiari baiño, au 1.448'garren urtean Arrasate'ko —Mondrago'ko— sutean il baitzen bere odoloko eta adiskideekin, Ganboatarrek uri au inguratu zutelarik eta egintza laidozgarri onetan Jaun Peru Abendaño'ko garailleen artean arkitzen dugu.

Baiñan, utz dezagun beste baterako Arrasate'ko erreteka izugarriaren kontaktizuna.

YON ETXAIDKO

(1) esan ala? (2) Asimismo. (3) Salbatu. (4) Gaston?

# EUSKERA TA GURE KONPLEJUAK (II)

Lehen adieraitako jokabideengatik errian saritzen da airoso ez alitiko-konplejuak euskerarengana; beraz onen monopolio guztia apatzak eta sendagileak eta maixu (euskaldunak) "baserrirako" bakarririk esagutu dutelako, practice beintzat, Exajeratu al dut? Baitzake, bañan zaurian ala-ala jo ere bal...

Eusker era ontan ezertako laguntzarik gabe azaltzen da. Beraz, erriak ikusten da bezen Obispoak, edo maiznak eta notariok ez dakiele euskera edo ez dutela egiten, ta orduan bezen notariauna ta arrotasuna makurtza sumatzen dute euskerarekin ta bereala asten dira beazko injustizi orren aurrean. Bañan orregatik sapuzte, erriak ere sasi-kultura daukala adieratzen du, gauz ortetan beintzat. Bañan erriaren jokazera sikelojiaz oso ongi konprentzen da. Sikelojiaz noski... Berriz ori berezko dala.

Onan izugarriko erria bota dugu "juzentzok", naizta ez lezu denak, gaur batez ere ontan obelgi guzuelako. Bañan zenbat kalite egiten dan euskeraren kontra. Maiztak kultura erakusi bear dute, ta erdera ere bai, bañan erakuste orrek beste kulturari matrialkoera erantzi gabe. Oien jokabideak ondorio asko dauka, ta denak neurta bear dira zorrozki, guztia sikelojiaz begratuz.

Gaur, euskeras barruan daukan etasirik aundienetakoa "ez-alitiko konpleju" au da. Orregatik doa itzaltzen erri kokorretan, lengo "jauntzen" aspuzteak baitzaita, beraz euskerak ez da eduki eritzo asko oietan cuspen sikelojiarik.

Berriziko erriak bota ditugu gerok euskerarekin, eta au izan da galantetakoa. Ori dala-ta galdu da euskera ordsal-emagratzo ez dagon eritzoetan ere. Zer egiten digute maixu olek, eta dotzila euskeraz erakuntz nai ez duten apala olek (erri aundiagoak noski)? Aita Santuen dotzina euskera cuspen du, onen eskubideak edozein ikuntzarenak bezela diralako, ta biltzeko cuspen sikelotza guztiek eskatzeko deretzko dalaikako.

(7'garren arrialdean bukatu)